

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Gelan egindako lanarekin lotua:

- ✓ Jakin badakigu gai honetaz modu pertsonalean hitz egitea zaila dela. Baina, agian, zuk antzeko egoera bat bizi izan duzu, eta ikaskideekin partekatu nahi duzu gertatutakoa. Idatz ezazu gertatutakoaren eskema kronologiko labur bat, eta kontatu ezazu eskolan zer gertatu zen zuen kasuan eta zer erabaki zenuten.
- ✓ Agian zuk adinekoentzako zentro edo egoitza batean egiten duzu lan edo egin duzu lan. Kontatuko al duzu gelan nolakoa den egun bat bertan? Normalean, jendeak ez du jakiten, eta baliteke ikaskideak interesatuta egotea. Egin ezazu eskema kronologiko txikitxo bat, eta kontatu ikaskideei eguneroko lana zertan den.

### Sarea erabilia:

- ✓ Gipuzkoan badago proiektu interesgarri bat adinekoen kontura. Egin klik [hemen](#), eta jaso ezazu informazioa. Ondoren, gelako kideei azaldu zertan den proiektua eta zer irizten diozun. Araban antzeko proiekturik ezagutzen al duzu?
- ✓ Gasteizko Udalak baditu adinekoentzako zentro berezi batzuk: [Adinekoentzako Zentro Soziokulturalak](#). Zer dira? Nola funtzionatzen dute? Jaso informazioa, eta eman zentro horien berri ikaskideei.
- ✓ Ohiko ereduak, zahartzaroa iristen denean: senideak edo profesionalak zaintzaile dituztela etxean jarraitzea, edo, bestela, zahar-etxera joatea. Aukera berriak zabaltzen ari dira, ordea: elkarren arteko zaintza, izaera komunitarioa, autogestioa, bizi-kalitatea eta adinekoen autonomia helburu. Etxebizitza-kooperatiba baten [proiektua](#) ezagutu nahi baduzu, klikatu bertan. Horrelako beste proiekturik ezagutzen duzu? Hala bada, kontatu ikaskideei.
- ✓ [Umeterapia: zahar-etxea eta ikastola sinbiosian](#). Getxoko *Geroa* ikastolako umeak albo-alboan daukaten *Santa Maria de Getxo* zahar-egoitzara joan dira, han bizi diren dozena bat inguru pertsona nagusirekin ordubetez egotera, berbetan, kantuan eta olgetan. Elkarrekin jarduteak batzuei nahiz besteei egiten die mesede, ekimenaren bultzatzaileen esanetan. Ikusi bideoa, eta kontatu ikasgelan zer irizten diozun.

### EITBko saio batzuk:

- ✓ Pilar Vitorianok 91 urte ditu, eta gerria hautsi ondoren eraman zuten erresidentziara. Nahiz eta heriotzaz kontziente izan, beraien artean ez dutela gaiaz inoiz hitz egiten esan du. *Ur Handitan* saioa atal batean kontatu zuen; entzun eta laburtu [Pilarrek esandakoa](#).
- ✓ 73 urte ditu [Elena Cengotitabengoak](#). Senarra galdu eta golpe bat hartu zuenean eraman zuten erresidentziara. Bertan ondo dagoela esan du, eta familiarentzat ez dela inoiz *karga* bat sentitu. *Ur Handitan* saioa bideo laburra da; entzun eta laburtu.
- ✓ *Ur Handitan* saioak atal oso bat eskaini zion Lekeitioko egoitza bati. Aurrekoak bezalako beste bideo labur batzuk ikusi nahi izanez gero, [klikatu](#) eta aukeratu bideoak. Ondoren, laburtu eta komentatu gelan ikusitakoa.
- ✓ Aplikazio batek zahartzean nolakoa izango zaren esaten dizu. *Egunak egin du* saioa erabili dute. Jakin nahi al duzu zer itxura izango duten zahartzean? Klikatu [hemen](#), ikusi eta komentatu ikasgelan.

### Film luzeak:

- ✓ Ikusi al duzu *Urte berri on, amona!* filma? [Esteka honetan](#) duzu filmaren berri. Trailerra gogoko baduzu, bila ezazu eta ikusi.
- ✓ Beste film ezagun bat [Amama](#) da; ikusi al duzu? Ikus ezazu trailerra, eta gogoko baduzu, bilatu eta ikusi.